



Koronabirusa munduko ekonomiaren bilakaera baldintzatzen ari da

Koronavirusaren hedapena jarduera ekonomikoa baldintzatzen ari da, ez bakarrik Txinakoa, baita mundu osokoa ere, Asiako erraldoiak munduan ekoizten diren produktuen zati handi baten balio kateetan parte hartzen baitu. Herrialde horretako ehun produktiboak bizi duen paralisiak munduko ekonomia galgatuko du eta, **NDFren arabera, aurreikusitakoa baino hamarren bat edo bi gutxiago haziko da**, baina gehiago izan litekeela ohartarazi du, gaixotasunaren hedaduraren eta hura kontrolatzeko beharko den denbora-aren arabera.

Oraingoz, koronavirusaren psikosia ez da heldu iritzi ekonomikoa biltzen duten Europako inkesta ezagunetara. Hala, **sentimendu ekonomikoaren indizea**, Europako Batzordeak egiten duena, puntu erdi bat hobetu zen otsailean, aurreko hilabetearekin alderatuta, eta **103,0an kokatu zen**, argi eta garbi 2000. urteaz geroztik izan duen batez besteko historikoaren gainetik (100,0). Gainera, **datu onenak ematen dituen osagaietako bat kontsumitzailearen konfiantzarena da**, haren batez bestekoa baino bost puntu gorago baitago. Era berean, otsaileko PMI konposatuaren aurrerapena 51,6 izan da, **azken sei hilabeteetako daturik onena baita**. Gainera, aipatzekoa da indizearen bi osagaiek hobera egin zutela hilabete horretan, manufakturakoak bereziki (48,4), azken zortzi hilabeteetako daturik onena lortu baitu.

Testuinguru horretan, **EAEko esportazioek Europakoek baino portaera hobea izan zuten**, iazko azken bi hilabeteetako emaitza onei esker. Izan ere, esportazioak %12,5 igo ziren azaroan eta %4,0, berriz, abenduan. Horren ondorioz, 2019. urteko saldoa -%0,4 diskretu batean geratu zen. Ondasun energetikoen salmenta, bereziki petrolio finduarena, nabarmen murriztu zen, baina gainerako produktuen datu onekin konpentsatu zuten, ekipo ondasunena bereziki.

Lan merkatuan, **Gizarte Segurantzako otsaileko afiliazioak aurreko hilabeteko tonuari eutsi zion eta %1,8 hazi zen urte arteko tasan**, urtarrileko %1,7aren apur bat gainetik. Halaber, zifra horiek profesionalak ez diren zaintzaileen efektutik zuzentzen badira, hobekuntza txiki bat ikusten da urtarrileko datuekin alderatuta. Sektoreka, industrian tonua galdu dela ikus daiteke (-%0,7), baina eraikuntzaren (%1,8) eta zerbitzuen (%2,5) datu onek konpentsatu dute. Era berean, langabezian dauden pertsonen kopurua %2,2 murriztu zen urte batetik bestera, eta kontratuak, ordea, %5,8 handitu ziren 2019ko datuekin alderatuta.

2019ko laugarren hiruhilekoan EAEko ekonomiaren hazkundearen aurrerapena baieztatzea falta bada ere, martxoaren 6an argitaratuko baita, **otsaileko koiunturazko datuek ez dute adierazten EAEko ekonomiaren narriadura nabarmena gertatzen ari denik**. Hala ere, espero izatekoa da Txinako enpresetan jarduera faltagatik gertatzen ari diren botila lepoek hurrengo hilabeteetan EAEko aldagai ekonomikoetan isla izatea, bai eragin zuzena dutelako, bai EAEko ekonomiak Txinak kaltetutako herrialdeekin, hala nola Alemaniarekin, duen harreman estuagatik.